

Poesia

OSKAR GAZTELU

Baserria (h)uz(s)ten




[32]

POESIA LEHIAKETA

ERNESTINA DE CHAMPOURCÍN 2022

erein

BASERRIA (H)UZ(S)TEN



Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

ARABAKO FORU ALDUNDIAK ANTOLATZEN DUEN ERNESTINA DE CHAMPOURCÍN 32. POESIA SARIA
IRABAZI DU LIBURU HONEK

1. argitalpena: 2023ko martxoan

Azalaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

© Oskar Gaztelu Bilbao

© EREIN. Donostia 2023

ISBN: 978-84-9109-886-7

L. G.: D 219/2023

EREIN Argitaletxea

Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus     

Inprimatzailea:

Arabako Foru Aldundiaren Moldiztegia

Oskar Gaztelu Bilbao

BASERRIA (H)UZ(S)TEN



erein

EURIA ARI DU

Euria ari du,
mantso.

Euria ari du,
gozo.

Tangadak arbolen adarretan zintzilik daude,
handik salto egiten dute
eta lurra musukatzen dute.

Zeruaren mezularia da euria,
zeruaren lotsaren ordezkatzailea.

Lurrari esan nahi dio
lurra maite duela,
besorik ez duela zeruak lurra besarkatzeko,
ezpainik ez duela zeruak lurra musukatzeko.

Euriaren bitartez laztantzen du zeruak lurra.

Noizbait, antzina bezala, biok,
zerua eta lurra batuko dira
denbora bako gozamenaren gerizpean,
baina oraindik mundua ez dago prestatua
biek bat egin dezaten.

Euria ari du
mantso eta gozo.

HAIZEA ETA BASOA

Noizean behin, soseguz,
neure barruko
baserri txikira sartzen naiz,
neure haurtzaroko baserrira.
Ezin dut esan zoriontsu ginenik,
baina gogoko dut
leku berean urteen oihartzuna entzutea,
itxi begiak eta
hegaz egiten dut,
jaisten naiz loaren ur
sakonetara.

Bertan,

beste ezer ez naiz: zuhaitz bat basotik urrundu dena,

haizea bihurturik,
buelbaka munduan,
goiko zeru urdinaren

eta lureko belar berdearen artean
mundua ikustea zen nire umetako ametsa,
eta haizea munduan zehar dabil
gauza guztiak laztanduz.

Landare guztiak.
Animalia guztiak.
Pertsona guztiak laztandu
eta alde egin.

Konpromisorik hartu gabe,
urtean behin
gure baso zaharra bisitatu
eta alde egin,
baina orain
zerbait ari da mugitzen nire barnean.

Nire bisita guztietan bezala,
basoko zuhaitzak leku berean daude,
lurrean ainguratuta
irmo eta zuzen,
beren sustraiak lurrean sartzen,
maitasuna egunero egiten,
une oro, erroak barrurago eta sakonago sartuz
ama lurraren umetokira,
plazer sendoa, etengabea, leiala sentituz.

Bitartean nire patua,
haizearen bizitza

gauzen artean bueltaka ibiltzea baino ez da.
Planak egiten, betiko ihesean,
eta ez ukitu, ez sentitu, ez inoren barruan sartzen, ez ezer.

Zer zoriontsu diren zuhaitzak,
nire baso zaharrera itzultzea gustatuko litzaidake,
zuhaitz bat gehiago izan,
eta nire sustraiak ama lurraren erraietan sartu.
Gero eta sakonago, eta plazera sentitu
lur gogorrean nire sustraiek bidea zabaltzen.

Baina orain hegaz egin behar dut.

Gelditu gabe.

Egunen batean nire basora itzuliko naiz
begiak ixten ditudan bitartean.
Eta nire baserri zaharrera itzuliko naiz.
Eta amonaren altzoan naiz.
Baso honetan beste bat izatea da nire nahia.
Orain nire patua hegaz egitea da, eta ez gelditzea.